



## PRENTSA-OHARRA

**"Itsas aerosorgailuetako osagai kritikoen digitalizazioa" deritzon europar proiektuak (DOCC-OFF ingelesezko siglen arabera) urruneko detekzio eta monitorizazioaren eragina frogatu nahi du diseinuaren optimizazioari, errendimenduaren igoerari eta *offshore* aerosorgailuetako azpisistema kritikoen mantentze-lanen kostuen murrizketari dagokienez**

*DOCC- OFF proiektuak milioi bat euroko aurrekontua du, Europar Batasuneko Itsas eta Arrantza Funtzak finantzatua, eta Energia Klusterrak koordinatzen du. Proiektua urtarrilaren 21ean abiatu zen Hine enpresak Olaberrian dituen instalazioetan.*

### **Proiektua**

Ekimen honen izen osoa "*Digitalization Of Critical Components in OFFshore wind turbines*" da: itsas aerosorgailuetako osagai kritikoen digitalizazioa. Eragiketa arloko datuak abiapuntutzat hartuz, aerosorgailuetako osagaien diseinua hobetu eta horien fidagarritasuna, produktibitatea eta energia-eraginkortasuna areagotzea du helburu, baldintza operatibo errealetan beste pieza batzuekin duten interakzioa hobeto ulertzeaz gain.

Horren harira, sentsoreak, urrutiko monitorizazio-sistemak eta *Big Data* aztertzekeo tresnak baliozkotu eta horien erabilgarritasuna frogatzea izango da DOCC-OFF proiektuaren erronka nagusia, osagai kritiko horiei buruzko informazioa bildu eta horietatik balioa sortzen laguntzeko, betiere zehaztutako helburuak betetze aldera.

Emaitzek eragin nabarmena izango dute DOCC-OFFeko bazkideen zein itsas energia eolikoaren balio-katean dauden beste enpresa batzuen lehiakortasuna hobetzeko, sektore hau energia lortzeko beste aukera batzuen ordezkotik alternatiba lehiakorra bihurtuz eta ustiapen nahiz inbertsio arloetako gastuak murriztuz.

### **Proiektuaren justifikazioa**

Aerosorgailuetako jatorrizko ekipamenduaren fabrikatzaileak (OEM) eta bestelako osagaienekoizleak sentsoreak eta datuak biltzeko sistemak txertatzen hasiak dira haiek hornitu eta



instalaturako produktuetan. Hala ere, gaurdaino ez da lortu frogaturako eraginkortasun-kontzepturik egiaztatzea, aurretiaz gainditu beharreko bi eten edo erronkaren ondorioz:

- Eten teknologikoa: teknologia baliozkotzeko lan handia egin behar da oraindik, merkaturatzeko prest dauden produktuak eta zerbitzuak eskaini baino lehen. Itsas parke eolikoetan urruneko sentsore eta monitorizazio-sistemen instalazioa areagotu behar da, izan ere, egun erabilgarri daudenek probetxuzko informazio mugatua ematen dute edozein gertakari prebenitu ahal izateko. Arazo gehienak ez dira antzematen gertatu arte, eta horrek galera handiak ekarri ohi ditu.
- Datuetarako sarbideari dagokion etena: parke eolikoek garatzaileek ("datuen jabeak") eta jatorrizko ekipamenduaren fabrikatzaileek (bezeroekin sinaturako akordio eskusiboaren bidez) baino ez dute jardunean dauden aerosorgailuek bildutako datuetarako sarbidea. Horregatik, osagaien Europako fabrikatzaile gehienek ez dute benetako baldintza operatiboetan lortutako errendimenduari buruzko datuak bildu, kudeatu, aztertu edo ikasteko aukerarik, haiexek ekoiztutako osagaiak izan arren, eta ondorioz, ez dute digitalizazioaren bitartez osagaien lehiakortasuna hobetu edo balio erantsia handitzeko aukerarik.

Ilido horretan, balantza-sistemen digitalizazioan dagoen eten teknologikoa gainditu eta benetako datuen eskuragarritasuna hobetzea da DOCC-OFF proiektuaren ardatz nagusia, baliozkotze eta saiakuntza-prozesu fidagarria lortzeko xedez.

#### **Europako 2 herrialdeetako 4 bazkide**

DOCC-OFF proiektuari eusten dion partzuergoa erakustaldi-proiektua garatzearen aldeko konpromisoan laguntzen ari diren 2 eskualdeetako 4 bazkidek osatzen dute. Hauexek dira bazkideak:

- Itsas aerosorgailuetarako osagaien fabrikatzaile bat, **HINE Renovables (ES)**
- *Big Data* eta datuen analisisian diharduen enpresa bat, **NEM Solutions (ES)**
- Aerosorgailuetako sistemak probatzeko saiakuntza-instalazioak dituen ikerketa zentro bat, **SIRRIS-OWI-Lab (BE)**
- Energia eolikoaren sektoreko balio-kate osoa ordezkatzeko duen enpresa-elkarte bat, **Basque Energy Cluster (ES)**